

Taldearen finantza egitura indartuko du

EROSKI -K BERE NEGOZIOA INDARTU DU KATALUNIAN ETA BALEARRETAN, EP CORPORATE GROUP BAZKIDE GISA SARTUTA %50ERA

- EP Corporate Group (Txekiar Errepublika) EROSKIren bazkide finantzario berria da
- Hitzarmen honek modua emango du inbertsioak eta jarduera berriz bultzatzeko Katalunian CAPRABO markarekin eta Balearretan EROSKI markarekin
- Hitzarmen honekin, EROSKI k azken pausoa emango du bere zorra normalizatzeko helburuan

Elorrio, 2021eko martxoaren 29a.- [EROSKI](#)k hitzarmen bat egin du EP Corporate Group inbertsore holdingarekin, eta bazkide partitario gisa txertatuko da SUPRATUC 2020 sozietatean, zeinak Kataluniako eta Balearretako negozioak biltzen baititu. Hala, EROSKI k bazkide finantzarioa bilatzeko prozesua amaitu du. 2019an hasi zen horretan taldeak bi lurraldeetan duen finantza egitura eta posizioa indartzeko.

Operazio horrekin, EROSKI k bere posizio finantzarioa hobetuko du, eta finantza erakundeekin zorra amortizatzeko zeukan konpromisoa bebetzat joko du urte amaierarako, aurrean konprometituta zuen zenbatekoa gaitututa. Era berean, hitzarmen honek inbertsioak eta jarduera bultzatzeko ditu berriz Katalunian CAPRABO markarekin eta Balearretan EROSKI markarekin. Operazioa guztiz ixteko, zenbait baldintza etengarri bete beharko ditu; besteak beste, arauzko eta kontratuzko baimen jakin batzuk.

EROSKIko lehendakariak, Agustin Markaidek, oso baikortzat du operazioa; izan ere, iragarrita zuten lekuan jarriko luke horrek EROSKI. *"Zalantzarik gabe gaurko hitzarmenarekin, lehen baino gaitasun handiagoarekin eman diogu amaiera prozesu honi. Lehenik eta behin, modua emango digu gure baliabideak indartzeko, eta gure inbertsio gaitasuna handituko du; gainera, zorra amortizatzeko konpromisoa beteko dugu, orain arte zuzen egin dugun bezala. Bestalde, pizgarria da EP Corporate Group-ek gure proiektuan jarri duen konfiantza etorkizunera begira, zeren eta hitzarmen hau bi aldeek kudeaketa eta garapen plan batekin abiatuko da, eta modua emango digu gure merkatuak sendotu eta gure posizio komertziala eta errentagarritasuna areagotzeko. Bazkide baten bila jarduteko orduan gure*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



negozioak azaldu duen gaitasun motorrak (baita nazioartean ere) erakusten du bide zuzenean doazela gure jarduera eta etorkizuneko planak", azaldu du Markaidek.

Daniel Křetinskyren eta haren talde exekutiboaren inbertsio holdinga da EP Corporate Group, eta urtero 10 mila milioi euro baino gehiagoko sarrerak dituzte energian, azpiegituran eta hedabideetan. Daniel Křetinsky eta haren kide Patrik Tkač eslovakiarra inbertsiogile nagusiak dira Europar besteak beste elikagaien sektorean txikizka aritzen direnen artean; partaidetzak dituzte Metron, Casino Guichard Perrachonen eta Britainiako Sainsbury'sen. *"Transakzio hau urrats garrantzitsua da EP Corporate Groupentzat. Gogotsu gaude EROSKIri lagun egiteko Katalunian eta Balearretan dituen negozioetan, ikur indartsuak baititu, oso erakargarritasun handikoak. Balioesten dugu haren antolaera, eta zeharo babesten dugu merkatu hauetan duen hedapen plana. Gure esperientziarekin eta baliabideekin berari garatzen lagundu nahi diogu",* esan du EP Global Commerceko CEOak, Marco Arcellik.

EROSKI, 50 urte pasa honetan, behin baino gehiagotan jardun da bazkide batekin batera negozioa garatzeko orduan. Gaur egun, hala dihardu Galiziako Vegalsa-EROSKI filialarekin, erdibanatua baitauka partaidetza.

Operazio honetan, EROSKI aholkularitza jaso du PwC Corporate Financeren, Banco Santanderren eta Deloitte Legalen eskutik. EPCGk, berriz, EY izan du aholkulari.

CAPRABO

EROSKI taldearen filiala Katalunian, CAPRABO, Espainian antzinatasun handiena duen supermerkatua da, eta EROSKI taldearen parte bihurtu zen 2007an. Hasieran Katalunian, Madrilen, Balearretan eta Nafarroan; CAPRABOren sarea, Kataluniatik kanpo bere saltokien ia erdia (%44) zena, EROSKIren sarean sartu zen edo zenbait operaziotan besterendua izan zen. Gaur egun, 213 supermerkatu propio ditu, 80 frankizia eta gasolindegia bat, eta sarea Kataluniako eta Andorrako lurralde osoan hedatua dago, haietan 5.700 pertsona baino gehiagok dihardutelarik lanean.

EROSKI BALEARRAK

Balearrak dira EROSKIren eskualde estrategikoetako bat; 107 supermerkatu propio eta 72 frankizia ditu, ia 2.500 langileko taldea eta 377.432 bezero bazkideko komunitatea.

EROSKI Taldea

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere *online* supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

EP Corporate Group

EP Corporate Group holding berri baten gisa ezarri da orain berriki, eta bertan bilduko dira Daniel Křetinskyren eta haren talde exekutiboaren partaidetza guztiak, honako hauek barne: EPH (energia eta azpiegitura), EPGC (handizkako eta cash & carry), CMI (hedabideak), ECI (merkataritza elektronikoa), EPRE (higiezinak). Pragan du egoitza EP Corporate Groupek, Txekiar Errepublikan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa